



3 UDALA Urchueguiaren aurkako salaketa onartuta

Ohiko Udalbatzarrean Pablo Barrio alkateak jakitera eman zuen Urchueguiaren aurka Udalak jarritako salaketa onartu duela Donostiako instrukzio 3. epitegiak. 25 urtez alkate izandakoak egindako diru laguntzen kudeaketan irregulartasunak egon daitezkeela argudiatu du epaileak. Ondorioz, inputatu bezala joan beharko du epai-learen aurrera.



4-5 ERREPORTAJEA Lanbide heziketa euskaraz egiteko aukerak eskualdean

Lanbide Heziketako erdi mailako eta goi mailako zikloak euskara hutsean egiteko aukera dago Buruntzaldean. Andoainan, Urnietan, Usurbilen eta Hernanin dago, hain zuzen, D erduan ikasteko aukera. Matrikulazio datuak, gainera, baikor izateko modukoak dira. Urtetik urtera gehiago dira euskararen aldeko hautua egiten duten ikasleak.

Etxean zein etxetik kanpo gertatzen diren erorketak ekiditeko aholkuak eman zituzten adituek asteazkenean Biyak Baten egindako saio berezian. Batez ere adineko jendeari zuzendutako jardunaldia izan zen eta parte hartze handia ikusita, beste saio bat antolatuko dela aurreratu zuten. Gaia jendearen interesekoa dela argi geratu zen.

Biyak Bat jubilatuen egoitzan egin zen asteazken arratsaldean erorketak saihesteko hainbat adituk eskainitako saioa. Bi orduko iraupena izan zuen eta honen baitan alor ezberdinak jorratu ziren. Goraino betetako hitzaldi aretoan lehena hitza hartzen Tolosaldeako Osasun Publikoko Nagore Errasti izan zen.

Osakidetzak landuta dituen arrisku eta aholkuak azaldu zizkien bertaratuakoei argazki ezberdinen laguntzaz.

Eroriko gehienak etxean gertatzen direla azaldu zuen eta etxean aldaketa gutxi batzuk eginda hauetako asko saihestu daitezkeela azpimarratu zuen.

Adibidez, sukaldean, tresnak eskura eduki, entxufeak ez gainkargatu edota zorua lehor eta garbi edukitzea komenigarria dela esan zien. Bainugelan, bainuontziaren orde, dutxa heltzeko barrekin jartzeko aholkatu zien, alfonbratxo irristagaitzak jarri dutxa barruan eta kanpoan. Pasa galarazten duten altzari

Erorketak saihesteko gomendioak

Biyak Baten egin zen saio jendetsua



Biyak Bat elkarteko aretoa lepo bete zen eta lekurik gabe geratu zirentzat, beste saio bat antolatuko dute.

eta trasteak kendu baita alfonbrak eta oin-zatarrak, edo sistema irristagaitzekin katigatuta edukitzea gomendatzen da.

Etetik kanpo, zentzuz jokatzeko eskatu zien Aranburuk "zebrabideetatik edo semaforodun pasabideetatik igaro, makuluak, bastoia edo taka-taka erabili beharrezkoa ikusten duzuenen. Kalean lanak dauden lekuetan kontuz ibiltzea eta lotu gabeko animaliekin arretaz jokatzeari".

Osasun arazoak

Jarraian, Leticia Escalante Lasarte-Oriako anbulatorioan lan egiten duen erizainak hitz egin zien erorketak eragin ditzaketen osasun arazoenguz inguruan. Erorketen eraginez sortutako lesioen zaintzaz ere aritu ziren edota zorabioak eragin ditzaketen botiken inguruan. Ikusmen eta entzumen ona edukitzea segurtasunez etxean zein kalean



Nagore Errasti Tolosaldeako Osasun Publiko Zerbitzuko kidea azalpenak ematen.

ibiltzeko tresna garrantzitsuenak direla gogorarazi zien erizainak.

Azkenik, Kiroldegian lan egiten duen Bizkortzen enpresako Valentin Cabrejas ariketa fisikoa egin eta arin mantentzearen garrantziaz jardun zen.

Bertaratutakoek galderak

egiteko aukera izan zuten saioaren bukaeran.

Parte hartze handia ikusita, antolatzaileek beste saio bat aurreikusi dute Biyak Baten bertan.

Gaia garrantzitsua dela eta, halako prebentzio jardunaldiak egin behar direla aipatu zuten.

ALCAR VENTANAS
Zuregandik hurbil
Etorri gure denda berrira,
Plaza Oriamendi, 2. (Lehenko Doble J)

GUARDIAN SUN KÖMMERLING Bandalux CORTIZO

www.facebook.com/VentanasAlcar

Jarrai gaitzazu Facebooken! gure jarraitzaile artean, laister hasiko gara opariak banatzen

PVC, aluminio eta zubi termikoaren haustura, lantzen ditugu

- Leihoak
- Ateak
- Itxiturak
- Armariuak
- Barandak
- Portalak
- Erakuslehoak
- Kontraleiho landatarrak
- Kontraleihoak lama finko eta orientagarria
- Pertsianak
- Saretak
- Sabai-Leihoak
- Toldoak
- Errezel-Hormak
- Beirateria orokorrean
- Dutzako manparak
- Sarrera ate korazatuak
- Konposite materialekin horma estaldurak
- Kartel komertzialen instalakuntza
- Gortinak

Tel: 943 37 78 68
tienda@ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com

ERAKUSKETA
Plaza Oriamendi, 2
20160 · Lasarte-Oria
Gipuzkoa · (Lehenko Doble J)

TAILERRA
Ibaiondo, 4 erdisotoa 5-A
20160 · Lasarte-Oria
Gipuzkoa

Neure kabuz



Gorka Lasa

Koadroaren horma

Herri guztietan izaten dira txoko eta toki bereziak, zein jendeak maite dituen elkarrekin geratzeko, paseatzeko, kafe bat hartzeko, edo, korrika egiteko. Denboraren poderioz, erreferente bilakatzeko dira, nahiz eta leku xarmant edo politak ez izan.

Gure herrian ere bada horrelako gune bat. Ez da bereziki toki erakargarria, baina badu zerbait aurretik pasatzean jendea bertan geratzeko duena, hari begira, tentu eta adi.

San Pedro elizako sarrera nagusiari buruz ari naiz. Sarrerako horman hildako herritarraren eskela ipintzen dute koadro batean horman iltzaturik, eta inor gutxi izaten da ondok pasatzean, eta burua bertara jiratu edo geratzen ez denik. Nahikoa da minutu erdi bat geratzea, norberaren argazkia ez dela ziurtatu eta alboan koadroari begira nor ez duzun berriz izango ikusteko.

Koadro batean horman iltzaturik, erakusgai, garrantzia eman nahirik. Herriak ikus dezan nork utzi duen bizitza hau beste batera pasatzeko, horixe baitugu gure kulturaren errotuta. Heriotza, gertakari bat delako, gertakari sozial bat. Zenbat heriotzen berri ematen digute egunean zehar?

Gurean, eliza kristauak hartu ditu bere gain heriotzaren ondorengo ohiturak, eta bereak egin ditu eskelen arau eta erritualak ere. Elizak, hildakoen omenez egingo den elizkizunaren berri ematen du, helburu batekin, noski, eliza betetzearena, alegia.

Ohiturak ohitura, nik badaezpada ez nioke hormako koadroari begiratzeari utzi nahi, eta zuek?

Zorion agurrak



Iugatz

ZORIONAK bihotza. 6 urte bete dituzu dagoeneko, segi horrela. Muxutxuak famili guztiaren partetik.



Eñaut

Zorionak Politta!!! Hamaika muxu Eneritz eta familian partez!!!



Oihane eta Erik

Zorionak etxeko errege eta erreginari!! Erik zure 2. eta Oihane 5. urtebetetzean. Egun zoragarria pasa maite zaituzten familia eta lagunekin muxu!



Oier

Zorionak, Oier! 8 urte zoragarri oparitu dizkiguzu! Muxu handi bat, aitatxo, amatxo, Unax eta Maddi.



Adriana

ZORIONAK ADRI!! Oso ondo pasa eguna, zure lagun partetik. 20 muxu handi!!!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezin Eskaintza

- Etxe bat alokatze da Oria auzoan. Harremanetarako, 666 28 62 39
- 44m2ko etxe goxoa saltzen dut sagardotegi kalean. Duela 2 urte osorik berrituta. Harremanetan jarri eta etorri ikustera. 635 75 00 20
- Urnietan Babes Ofizialeko Etxebizitza salgai. Garajea eta trastelekuarekin. 626 05 74 85.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da tabernan edo zaintzan orduka edo externa moduan. 645 53 04 90.
- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da, umeak zaindu, adineko pertsonak. Esperientzia eta erreferentziarekin. 648 63 00 16 Kontxi.
- Interna edo externa moduan garbiketa edota zaintza lanak egiteko emakumea prest. Tabernan lan egingo nuke ere. 676 18 84 11 /645 53 04 90

- Emakume arduratsua eskaintzen da garbiketa lanetarako edota haur eta edadetuak zaintzeko. 44 urte. Esperientziarekin. 611 30 94 62.
 - Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka arratsaldean etxeko lanak, garbiketa, platerak garbitu edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 619 80 31 99.
 - Etxerako langile bat eskaintzen da. Interno edo externo moduan lan egiteko. 676 18 84 11.
 - Kamarero lanetan aritzeko prest. Esperientzia, arduratsua, hizkuntzak, itxura ona. 645 64 55 57.
 - Lan bila nabil. Zaharrak zaintzen edo umeak. 645 78 72 72.
- Bestelakoak**
- Emaztegaia eta almirantearen jantzi bana jaunartzetarako. Merke. 943 37 00 92.
 - Gitarra klase partikularren bila nabil lasarten. 663 34 28 62 Ekiñe

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Enaitz Nuñez Dominguez, martxoaren 7 an.



Heriotzak

- Pilar Bereciartua Zubizarreta, martxoaren 10ean, 73 urte zituela.
- Miguel Garcia Loureiro, martxoaren 9an, 58 urte zituela.
- Carmelo Cuadrado Diez, martxoaren 6an, 74 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 13	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 14	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 15	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 16	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteartea, 17	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 18	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Osteguna, 19	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munterri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidor Seguro, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

UDALBATZARRA

Urchueguiaren aurkako salaketa onartu du epaileak

25 urtez alkate izandako Ana Urchueguiak inputatu bezala joan beharko du

Ohiko udalbatzarrean alkateak jakitera eman zuen Ana Urchueguiaren aurka abenduan udalak aurkeztutako salaketa tramitera onartu egin zuela Donostiako instrukzioko 3. epaitegiak "delitu zantzuak" daudela argudiatuta. Orduan alkateak azaldu zuenez, diru publikoaren prebrikazio eta bidegabeko usteko erabilpenagatik jarri zitzaion salaketa Ana Urchuegui alkate ohiari.

TXINTXARRI

Ohiko plenoa bukatzeaz zela, Pablo Barrio alkateak Donostiako instrukzioko 3. epaitegiak Ana Urchueguiaren aurka jarritako salaketa tramitera onartu egin duela jakitera eman zuen.

Legegintzaldi berrian EHBildu, EAJ eta LOHP-ek gaia aztertuko zutela agindu zuten eta adituen iritzi eta azterketa ezberdinen ondorioz, abenduan aurkeztu zen epaitegitan Ana Urchueguiaren aurkako salaketa "diru publikoaren prebrikazio eta bidegabeko usteko erabilpenagatik".

Pablo Barrio alkateak epaileak igorritako autoaren zati bat irakurri zuen udalbatzarrean. Gainontzeko alderdiek plenoan bertan izan zuten honen berri eta ez zegoen gai zerrendan aurreikusita. Hain zuzen, hori izan zen PPko Vanessa Velezek alkateari aurpegiratu ziona.

Ana Urchuegui alkate

ohiak idatzian jasotzen denez, "inputatu bezala joan beharko du epailearen aurrea". Epaileak Udalaren salaketan agertzen diren diru laguntza batzuen justifikazio falta dela eta ikerketa beharrezkotzat jotzen du eta higiezin baten erosketan irregularitasun zantzuak ere daudela dio.

EAJko Estitxu Alkorta esan zuen "urte asko izan dira irregularitasunak salatzen eta azkenean, epaile batek ere hauek ikusi ditu".

Jesus Zaballos PSE-EEko bozeramaileak esan zuen, gai honen inguruan ez zaiola oposizioari informatu, "udalaren izenean aurkeztutako salaketan zer jasotzen den ere ez dugu jakin, nahiz eta askotan galdetu dugun. Orain, ohiko batzarrean, aurrez ezer jakin gabe, honen berri eman zaigu. Ez da bide egokiena".

Gaineratu zuen, "zuzenbidean ezagutzak edukita, esango nuke hobe dela inputatu bezala joatea, lekuko bezala deitua izatea baino. Aldi berean, esan behar da



Herritar andana hurbildu zen astearteko plenora.

tramitera onartzeak ez duela ezer esan nahi. Lehenengo pausoa besterik ez dela argi utzi behar da". Zaballosek gaineratu zuen "epaileak Ana Urchuegui errundun dela frogatu eta erabakitzen badu, egindakoagatik ordaindu beharko du".

Aurreikusitako gaiak

Gai zerrendarekin ekin zitzaion ohiko udalbatzarriari. Honetan hainbat kontu emate, eskaera eta mozio izan ziren hizpide. 2015. urtean egin ziren kreditu aldaketan berri eman zen, baita 2014. urtean udal kontu hartzaileak bideratutako erreparazioak ere.

PSE-EEK batzar informatiboetako kide berrien berri eman eta bi mozio aurkeztu zituen, bata Correoseko langile murrizketaren aurkako eta bestea, Aterpea merkataritza elkarteari lokala lagatzeko. Correos-en privatizazioaren aurka agertu eta plantillan egindako %25eko murrizketa salatzea eskatu zuen Zaballosek, langileei babesa azaldu nahi izan diete honen bidez ere. PPrentz abstentzioa izan zen baina gainontzekoek alde bozkatu zuten Bilduren aporazioekin osatutako mozioa.

Bestetik, Aterpeari Gambo kaleko OMIC-en bulego zaharra uztea eskatu behar zuen Zaballosek baina

mozioa bertan behera utzi zuen.

Lasarte-Oriako Podemos-Ahal Duguk mozio bat aurkezteko aukera izan zuen, Kutxabanki Oriako auzoan kutxazain bat jartzeko eskatu zuten baita, Oriako bizilagunek aukera dezaten non nahi duten hau. Zaballosek esan zuten Kutxabank bihurtuta, eskualdekako asanblandak desagertu direla eta eskaera bideratzeko beste zer-bait proposatzeko. Podemoseko kideek bertan behera utzi zuten mozioa "aurrerako aurkezteko".

Udal Gobernuak bestalde, aldaketa eskaerak egin zituen hala nola Atsoabakar egoitzaren kudeaketa eskualdatzeari buruzko hitzarmenaren aldaketa edo hiru lanposturen hizkuntza-eskakizun eta derri-gortasun-datena. Biak onartu ziren.

Honetaz gain, Udal langileen hizkuntzako prestakuntza arautzen duen ordenantza puntu bat moldatzea aztertu eta onartu zen. Ana Urchueguiaren gaiak sortutakoaren ostean, bertaratuak herritarrek hartu zuten hitza. Sasoeta-Zumaburuko gurasoek eskolan dauden hezetan "larriak" salatu zituzten eta Ana Prietok gaia aztertzen ari direla erantzun zuten.

1.500 litro olio saldu ditu Errigorak

Denera 310 bidoi saldu dira Lasarte-Orian, horietako 91 ekologikoak izan dira eta gainontzekoak konbentzionalak. Cascanteko 'La casa del aceite' eta Ablitas kooperatibako olioak jaso dute aurtengoan. Asteazkenean hasi ziren olioak herritarrei banatzen Ttakunek Iñigo de Loyola kalean duen egoitzan, Lanbide ondoan.

Euskal Herrian 9.100 bidoi eta 45.500 litro saldu dituzte, iaz baino %50 gehiago. Aurten 50 herritan egin du eskaintza Errigorak. Iaz 30etan izan ziren Nafarroa hegoaldeko olioak eskatzeko aukera.

"Denbora gutxian Errigoraren sarea nabarmen sendotu da, baita Lasarte-Orian ere. Aurten gainera eskaerak online egiteko aukera zabaldu



Herritar batzuk Nafarroa hegoaldeko olioak hartzerako joatean ateratako argazkia.

dugu eta bide horretatik 1.000 eskaera jaso ditugu, dena den, eskaera gehienak Errigoraren sarekide eta lagunek herriz herri egindako lanaren emaitza dira. Ahoz aho eta eskutik eskura", adierazi dute Errigorako kideek.

Aurrera begira, Errigoraren erroka "kontsumo ohituren aldaketan sakontzea" eta jende gehiagorengana heltzea da. Maiatzean kontserba loteak eskainiko dituztela jakinarazi dute, euskara eskutik eskura zabaltzen jarraitzeko.

OE legea moldatu nahian



Ayudas más justas-Bidezko laguntzak plataformako kideak merkatuan izan ziren.

Krisi egoera dela eta, oinarriko errenta (OE) jasotzen duten herritar ugari dago. Hauetan iruzurra edo gehiegizko esleipena ekidin eta oinarriko errentaren legeak dituen hutsuneak osatu nahian, Ayudas más justas-Bidezko laguntzak herritar plataformak, legearen aldaketa eskatu nahi du.

Horretarako sinadura bilketa egiten ari dira, 30.000 behar dituzte eta Lasarte-Orian izan ziren asteazkenean.

Herritar plataformak bederatzir neurri proposatzen ditu hau moldatzeko. Hala nola, delituak egiten dituzten pertsonen edo legez kanpokoekin oinarriko errenta ez jasotzea.



LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOETAN ETA LANTOKIKO PRESTAKUNTZAN EUSKARA ERABILTZEKO AUKERA DAGO

Lanbide Heziketa euskaraz, aukera aparta eskualdean

Lanbide Heziketako erdi mailako eta goi mailako zikloak euskara hutsean egiteko aukera dago Buruntzaldean. Andoainen, Urnietan, Usurbilen eta Hernanin dago, hain zuzen, D ereduaren ikasteko aukera. Matrikulazio datuak, gainera, baikor izateko modukoak dira. Urtertik urtera gehiago dira erdi mailako eta goi mailako zikloetan euskaraz ikastea aukeratzeko dutenak.

Euskaraz ikasi eta lan munduan euskaraz aritu nahi duenari erraztasunak eman nahi dizkiote ikastetxe hauek; horregatik, hainbat ziklo D ereduaren emateko apustua egin dute. "Helburua argia da: euskaraz ikasi nahi duten ikasleei aukera hori ematea", dio Ainitze Blancok.

Hernaniko institutuko euskararen normalakuntzan lanean dihardu eta dioenez, "Euskal Herrian egonda, euskara bultzatu eta indartu nahi badugu, ezinbestekoa ikusten dugu Lanbide Heziketa ere euskaraz ikastea".

Ikasketak euskaraz egiteak, gerora lan munduan euskaraz aritzea laguntzen die. Honenbestez, lan mundua euskarazaren eronka ere hartu dute ikastetxeek. "Askotan pentsatzen da lan mundua erdalduna dela, baina ikasleei erakutsi nahi diegu ez duela zertan hala izan".

Horretarako, lantokiko prestakuntza euskaraz egin dezaten saiatzen dira, ikasleak enpresetara joaten direnean euskara ere erabili dezaketela ikusteko.

Hernaniko Seiher enpresan, esaterako, lehenengo hizkuntza euskara izaten saiatzen dira.

Bezero asko kanpotarrak dituztenez, haiekin gaztelaniaz egin beharra daukate, baina bestela, barne komunikazioa euskaraz izan ohi dela dio Leire Gonzalez idazkariak: "Lan munduan euskaraz aritzea lan motaren eta merkatuaren araberakoa da. Dena den, euskaraz dakigunok euskaraz egiten dugu; baita praktiketara etortzen diren ikasleekin ere".

Gainera, oso garrantzitsua iruditzen zaio gazteek ikasketak euskaraz burutzea: "Zikloak euskaraz egitea lagungarria da ikasleentzat. Lan munduan badaude hitz tekniko batzuk, euskaraz ikasi ez badituzu, ondoren erabiltzeko zail direnak. Gainera, gure



Ainitze Blanco Hernaniko institutuko euskararen normalakuntzarako arduraduna.



Leire Gonzalez Hernaniko Seiher enpresako idazkaria.

hizkuntza eta gure kultura denez, lan mundura ere eraman behar da". Modu honetara, aukera dutenek behintzat, lanean euskara erabili daitekeela ikusten dute.

Hala ere, ez da denek kasua hori izaten; praktikan euskara erabiltzea edo

ez, bertako langileen arabera ere izaten baita. "Guk, ikastetxe bezala, D ereduko zikloetan lantokiko prestakuntza guztiak euskaraz eskaini beharko genituzke. Zer gertatzen da? Ikastetxetik kanpoko modulo bat izanda, ez dagoela gure esku", dio Ainitzek.

Praktikak egin dituztenen lekukotza

INKESTA

1. Euskaraz ikasteak garrantzia al du zuretzat?
2. Zertan lagundu dizu euskaraz ikasteak?
3. Zer moduzko esperientzia izan da lantokiko prestakuntza euskaraz egitea?

Jon Urretabizkaia



Jon Urretabizkaia.

Ikasketak: Erdi mailako Instalazio Elektriko eta Automatikoak, Urnietako Salesiarretan. **Praktikak:** Seiher Img Sistemas Electricos S.L

1. Bai, handia. Betidanik euskaraz hitz egin eta ikasi izan dut eta orain ohitura hori aldatzea izugarri kostatuko litzaidake.
2. Hiztegiko hitz asko ikasi

BURUNTZALDEKO IKASTETXEETAN

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

2005-2006 ikasturtea:

Izena emanda: 336 ikasle.
B+D ereduak: 183 (%54,5).

2014-15 ikasturtea:

Izena emanda: 379 ikasle.
B+D ereduak: 210 (%55,4).

GOI MAILAKO ZIKLOAK

2005-2006 ikasturtea:

Izena emanda: 776 ikasle.
B+D ereduak: 254 (%32,7).

2014-15 ikasturtea:

Izena emanda: 1.046 ikasle.
B+D ereduak: 566 (%54,1).

Eneko Elosegi



Eneko Elosegi.

Ikasketak: Goi eta erdi mailako zikloak, elektrizitatean. Urnietako Salesiarretan ikastetxean. **Praktikak:** Electricidad JNA S.Coop eta Talleres Electricos Andoain.


1. Bai, nire ama hizkuntza euskara delako eta erdaraz eginez gero zailtasunak ikusten ditudalako.
2. Ulemenean eta adierazteko garaian errazago egiten zait euskaraz aritzea.
3. Ona, gauza berriak ikasi ditudalako. Dena den, ez ditut guztiak euskaraz egin, langile bat baino gehiagorekin gaztelaniaz hitz egin beharra nuelako. Nire ustez, ez da abantaila bat, eskubide bat baizik. Gure hizkuntza da, eta lanean ere gure hizkuntza erabiltzeko eskubidea dugu.

ditut erreminta eta material aldetik; baita lan munduan euskaraz moldatzen ere.

3. Ona, gustura aritu nintzen. Giroa oso ona zen lanerako eta lankide gehienekin euskaraz aritzen nintzen. Ama hizkuntzan beti errazago aritzen da bat.



Lanbide heziketa euskaraz



ERDI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZA	BURUNTZALDEAN	LEIZARAN Institutua (Andoain)	ESCIVI (Bideo eta Zine Eskola, Andoain)	LA SALLE-BERROZPE (Andoain)	URNIETAKO SALESIARRAK	USURBIL GLHBI
• Instalazio elektrikoetako laguntzailea • Grafikagintza			B			B
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA						D
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA						B, D
FABRIKAZIO MEKANIKOA					B	D
GRAFIKAGINTZA					B	
INSTALAZIOA ETA MANTENIMENDUA					B	D

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA					B	D
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA				D	B	B, D
FABRIKAZIO MEKANIKOA				D	B	D
INSTALAZIOA ETA MANTENIMENDUA						D
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK				D		D
SOINUA ETA IRUDIA						D
GRAFIKAGINTZA						B



Buruntzaldeko ondoko eskualdeetan dauden lanbide heziketa zentroetako informazioa baino ez dugu txertatu. Informazio gehiago topatuko duzu webgune hauetan: www.ikaslangipuzkoa.eus | www.hetel.org

LABURRAK.-

Bi porrot eta berdinketa bat areto-futbolean

Ez da asteburu xamurra izan Lasarte-Oriako taldeentzat. Ostadar Antonio Aroztegiak errepaso handia jaso zuen Egintza CD Villabonako taldearen aurka. Lourdes Murilloren mutilek 2-9 galdu zuten III. Nazionaleko gipuzkoarren arteko derbian.

Partiduaren lehen minutuetan etxeokak izan ziren nagusi, baina kontraeraso batean 0-1eko jaso zuten urdin-beltzek. Golak ez zituen kikildu eta hiruzpalau aukera garbi izan zituzten banakoa sartzeko. Lehen zatia halaxe amaitu zen, Ostadar 0-1 markagailuan atzetik zela. Bigarren zatia lehen erdian-Dani Vidaurretak eta Aitor Lertxundik sartutako golek zaleen ilusioa piztuarazi bazuten ere, Egintza gehiago izan zen eta atezain-jokalari sistemak ez zuen fruiturik eman. Azkenean 2-9, zigor handia osatu zuten partidu serioarentzat.

ISU Leihoak 9-3 galdu zuen Oiartzunen aurka Gipuzkoako maila nagusian eta probintziko III. mailan Ostadarrek bina berdindu zuen Muxarraren aurka.

Veroniz, Rekondo eta Galardi LOKEko juniorrak Espainiako txapelketan, Valentzian

Hiru gazte lasarteoriatarrek txapelketa ona egin zuten Valentzian, pista estaliko Espainiako juniorren txapelketan.

Ane Galardik bi proba egin zituen, 60 metroetan marka personala eskuratu bueltatu zen herrira eta jauzi hirukoitzean finalista postuarekin. Atletismoko probarik motzeneko 60 metroak 7.99 segundotan bota zituen LOKEko atletak eta jauzi hirukoitzean 11,27 metroko hegaldia egin zuen seigarren postuan amaitzeko.

Yeray Veronizek 60m-etako finalurrekoetan 7.25eko marka eginda, estatuko 16. juniorrik azkarrena dela erakutsi zuen.

Maider Rekondok azkenik, pisu jaurtiketan, 11,77 metrotaraino bidali zuen lau kiloko bola Espainiako 4. junior neskarik indartsuena dela erakusteko eta marka personal berria ezartzeko.

Oscar Goikoetxea LOKEko entrenatzailea pozik zen hiruren lanarekin: "Oso gustura nago. Rekondok ia metro bat hobetu du eta aire libreko Espainiakorako gutxienekoa egin du, baina bere proba diskoa da eta eskua askatzen duenean... Galardik jauzi hirukoitzeko azken saltoan du hobetu beharra eta 60 metroetan egin duena handia da, 8 segundotik jaitea oso da zaila. Veronizek denbora gutxi darama atletismoan, baina emaitza oso onak lortu ditu jadanik. Aurten abiadura pixka bat falta zaiola uste dut aurten. Ea aire liberako puntuan jartzea lortzen dugun".



Edu GALARDI

TENISA.-

Lasarte-Oriako ATG txapelketa martxan da

38 tenislarik eman dute izena bakarkako txapelketan, horietatik bost herrikoak dira; zortzi bikote arituko dira binakakoan

Michelingo pistetan erraketen eta piloten kolpeak entzungo dira apirila-maiatza bitartean. Hasi da ATG Lasarte-Oria txapelketa. Garesti egongo da txapela, baina Tena, Huegun, Lorenzo, Velasco eta Garcia lasarteoriatarrek lan txukuna egin nahiko dute herri-tarren aurrean.

JON ALTUNA EGITEGI

A TG (Aficionados al Tenis de Gipuzkoa-Gipuzkoako Tenis Zaletuak) probintzia mailan txapelketak egiteko asmoz sortutako elkarte da eta Lasarte-Oriako torneo zirkuitu horren barnean kokatuta dago.

Antolatzaileek iazko arrakasta errepikatu nahi dute. Printzipioz, horretarako baldintzak betetzen ditu txapelketak. Banakakoan 38 tenislarik eman dute izena eta binakakoan zortzi bikote arituko dira lehian.

Horietako bost dira lasarteoriatarrek: Fermin Tena, Javier Velasco, Alex Garcia, Santi Lorenzo eta Ander Huegun. Iazko garailea Inko Mugika ere Michelineko pistetan izango da, txapelketa irabazteko hautagai nagusia dena. Bera da ATGko bat zenbakia. Dena den, aurten



Iazko irudia. Gabriel Zubillaga finalista ezkerrean eta Inko Mugika garailea eskubian.

pilota ongi astintzen duten lauzpabost gaztek eman dute izena eta Mugikari gauzak zail jartzen saiatuko dira.

Torneo 'erakargarria'

"Torneo polita da, jendeak urte hasieran beti galdetzen digu ea Lasarte-Oriako torneo antolatuko dugun", dio Mikel Espinal ATG zirkuituko antolatzaileetako batek.

Michelingo pisten ezaugarri nagusia pista "azkarra" izatearena dela dio Espinal: "Gipuzkoako azkarrenetakoa da, azkarrena ez bada. Ongi babestuta dago haizearengandik eta gainera ez da urik sartzen. Jendeak urtero etorri nahi izaten du".

Hala ere, aurten txapelketak aldaketa batzuk ere jasanango ditu. Izan ere, partiduak larunbat eta igande goizetan jokatu beharko dira nahitaez, arratsaldeetan pistak hartuta daudelako.

Koadro bidezko txapelketan aurrera egiten duten tenislariak apirila amaierara arte edota maiatza hasierara arte jokatu ahal izango dute, orduan jokatuko dira finalak.

Hori bai, lehen partidua galtzen duena automatikoki 'Quick' txapelketan sartuko da, "gutxienez Lasarte-Oria bi partidu jokatu ditzan", Mikel Espinal antolakuntzako kideak azaldu bezala.

ATG zirkuitua

ATG probintziako tenislari amateurren zirkuitua da, denera 24 txapelketa antolatzen dituzte Gipuzkoan eta ondoren zerrenda bat egiten dute, tenislari erregularrena zein den jakiteko.

Martxoaren 9an eguneratutako rankingean 202 tenislari ageri dira punturen batekin. Fermin Tena da lasarteoriatarrik onena, zerrendako 11. postuan ageri da herritarra.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 14

Michelin, 10:00etan

Texas Lasartearra - Internacional
Jubenilak I. maila, Kopa
10. jardunaldia.

Artia, Irun 12:00etan

Behobia - Ostadar SKT
Infantilen Ohorezko Kopa
7. jardunaldia.

Michelin 12:00etan

Ostadar SKT - Real Union
Kadeteen Euskal Liga
25. jardunaldia.

Martutene, Donostia 12:30etan

Amara Berri - Ostadar SKT
Kadeteak I. maila, Kopa
9. jardunaldia.

Michelin, 15:30ean

Texas Lasartearra - Segura Goierri
I. Erregionala, Kopa
9. jardunaldia.

Michelin 17:15ean

Ostadar SKT - Zarautz KE
Ohorezko Erregional Maila
26. jardunaldia.

Herrera, Donostia 17:30ean

Sporting Herrera - Ostadar SKT
Jubenilen Ohorezko Maila
23. jardunaldia.

Maistegi, Lesaka 18:30ean

Beti Gazte - Ostadar SKT
Emakumezkoen Lurralde Maila
9. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 13

Herriko areto-futbol txapelketa, 20.
jardunaldia

Michelingo kirol-gunea, 19:45ean

Indaux - Urdaneta HK

Michelingo kirol-gunea, 20:45ean

Izkiña - Reformas Lagunak

Larunbata 14

Michelingo kirol-gunea, 9:15ean

Bar Also - Txindoki

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

Insausti - Txoko Taberna

Michelingo kirol-gunea, 11:15ean

Viña del Mar - Trumoi

Michelingo kirol-gunea, 12:15ean

Buenetxea - Bar El Punto

Michelingo kirol-gunea, 13:15ean

Reformas Lagunak - Izkiña

Igandea 15

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

Urdaneta HK - Indaux

Michelingo kirol-gunea, 11:15ean

Buenetxea - Viña del Mar

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 14

Zarautz, 10:00etan

Bazpiko kadeteek Zarauzko XXV.
sarian parte-hartuko dute, 52
kilometroko ibilbidearekin.

Igandea 15

Egia, Donostia 10:45ean

Juanjo Zabalen 21.

Oroimenezkoan parte-hartuko dute
Bazpiko jubentilek. 80 kilometroko
ibilbidea.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Igandea 15

Gasteiz, San Andres kiroldegia, goizean

LOKEko kadete, jubentile eta
seniorrek Gasteizko Hiria
txapelketan parte-hartuko dute.

ATLETISMOA

Larunbata 14 - Igandea 15

Belodromoa, Donostia 10:15ean

Idoia Olasagasti eta Eneritz Busto
LOKEko atletak Espainiako jubentile
txapelketan parte-hartuko dute.

ERRUGBIA

Igandea 15

A Coruñan, 12:00ean

CRAT - Zarautz Beltzak

Ohorezko B maila,

— Agenda —

Bihar, Xirimiri elkarte 21:00etan



Bertso-afari literarioa

Bertso afari literarioa antolatu du herriko Irakurle Txokoak. Honetan parte hartuko dute Igor Elortza, Uxue Alberdi, Ane Labaka eta Harkaitz Canok. Bertso-afari literario honen helburua Irakurle Txokoa lasarteoriarrei ezagutuz eta ekimena diruz laguntzea da. Txartelak 20 eurotan eros daitezke Gure Etxea, Jalgi, Ilargi eta Trumoi tabernetan.

tan gai jartzaile Amaia Agirre izango da eta bertsolariak Ane Labaka, Unai Mendizabal eta Asier Azpiroz. Sarrera Doan.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Martxoan zehar

Rudy margolariaren "Itzalaren koloreak" bilduma dago ikusgai.

Astigarraga

Zinema

KULTUR ETXEA

Larunbata, 11:00etan

Haurrentzako "Hurrak eta lapurrak" filma eskainiko dute. Sarrera 2 euro. On-line salgai martxoaren 9tik 13ko 17:00ak arte, eta leihatilan martxoaren 9tik 13ra eta egunean bertan emanaldia hasi baino ordu bete lehenago.

Lasarte-Oria

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Gaur, ostirala, 22:00etan

"Ospea 20 pausora" filma Okendo Zinema taldearen zine forum saioan. Korrika kulturalako egitarauarekin bat eginez. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 17:00etan

"Big Hero 6" animaziozko filma haurrentzako zinema atalean. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 19:30ean

"Las ovejas no pierden el tren" filma helduentzako zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 19:00etan

"Zu Gabe" antzerkiak gozatu ahal izango da ATE teatroaren eskutik. Korrika Kulturalaren baitako ekintza. Sarrera 5,50 euro.

Aurkezpena

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Gaur, ostirala, 19:00etan

Martxoaren 19an Urepeletik atera eta 22an Lasarte-Oriatik pasako den Korrika 19-ren aurkezpen ekitaldia izango da. Kilometroen dortsal banaketa, dantzak eta arropa desfilea izango dira besteak beste, Mainer Seguroiak gidatutako ekitaldian. Sarrera doan izango da eta herritarrek bertara gonbidatzen dituzte.

Musika

BRIGITARREN KAPEREA

Gaur, ostirala, 19:30ean

Danok Kide elkarteak antolatutako X. Musika Topaketen baitan, gitarra entzunaldia izango da Donostiako Francisco Escudero kontserbatorioko ikasleen esku. Garai zeberdinetako doinuak eskainiko dituzte. Doan.

SIGLO20

Gaur, ostirala

Angeles caidos taldearen kontzertua izango da.

Bertsolaritza

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Gaur, ostirala, 22:30ean

Korrika Kulturalaren baitan, Bertso Korrika saioa izango da gurean. Hone-

Antzerkia

KULTUR ETXEA

Larunbata, 17:30ean

Haurrentzako "Hitu txerriak eta otsoa" antzerkia. Herrian ikusi ez zutenek aukera dute. Sarrera 2,5 euro.

Hernani

Musika

AGUSTINDARREN ELIZA

Gaur, ostirala, 11:00etan

Secretum taldearen kontzertua. John Dowland eta Anthony Holbornearen musika eskainiko dute. Hernanin Musik ekimenaren barruan antolatua, doan.

— Herritarren txokoa —

Korrikaren materiala salgai

Martxoaren 19tik 29ra egingo da Korrika eta martxoaren 22an pasako da Lasarte-Oriatik. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea. Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Muntteri euskaltegian.

Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta poloak bertan daudela jakinarazi dute AEK-ko kideek. Herritarrek euskaltegitik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko ordu-tegian.

Nikaraguako kontsulatu mugikorra Donostian

Gurean bizi diren Nikaraguako herritarrek aukera izango dute euren paperak eta tramiteak Donostian bertan egiteko Madrilen kokatuta dagoen kontsulatura joan gabe.

Kontsulatu mugikorra deritzona, Aldundia, Esperanza Latina eta El Güegüense elkarten ekimenez ekarri da. Martxoaren 12 eta 13an

Donostiako Julio Caro Baroja plazako 2. zenbakian, 3. solairuan izango da. Aurrez hitzordua hartu behar da 665 29 38 67 zenbakira edota consulnic.madrid@gmail.com helbidean.

Erakusketak jartzeko espazioa

Jalgi Kafe Antzokian erakusketa jartzeko interesa izan dezakeen edozeinek kultura@ttakun.com edo 943 37 14 48 telefonora dei dezake espazioa eskatu, edozein zalantza edo informazio gehiagorako. Normalean hila-beteko iraupena duten erakusketak izanten dira Jalgin jartzen direnak. Margoak, argazkiak, ilustrazioak... jarri daitezke. Ez da zertan Lasarte-Oriakoa izan behar espazio hau erabiltzeko.

Eskutitza

Giza eskubideen urraketarik ez!

Santiago Arrozpide Lasarte-Oriatarra kaleratzea baliogabetu berri du Auzitegi Goren espainiarrak. Erabaki erabat injustua izateaz gain, arau europarraren aurkakoa ere bada. Auzitegi Gorenaren erabakiak pertsona batek delitu berberagatik bi zigor betetzea suposatzen du, lehenago Frantzia eta gero Estatu espainiarrean.

PPren mendeku politikaren zerbitzura harturiko erabaki judizial bat da honakoa. PPrentzako dena da zilegi, legeak ad-hoc asmatzetik eta segurtasun juridikoa ezabatzeraino. Erabaki honekin, Auzitegi Gorena PPrentzako zerbitzura dagoen tresna gisa kokatzen da zuzenbidea eta mendekuzko justizia aplikatzeko.

Ziur gaude Giza Eskubideen Estrasburgeko Tribunalak maniobra ziztrin hau atzera botako duela, ez badu lehenago zuzentzen Luxenburgeko tribunalak berak. Baina horrek denbora eramango du, noski, eta bitartean Santiago, zuzenbidearen kontra bada ere, espetxean jarraitu beharko du, bere zigorra baino gehiago betetzera kondenatuta.

Beraz, giza eskubideen urraketa eta mendeku kanpaina hau alde batera utzi eta Santiago kaleratzea eskatzen dugu. Eta Euskal Herrian beharrezkoa dugun bake prozesuan aurrera pausoak eman daitezken eskatzen dugu.

Sortu Lasarte-Oria

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

